

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA

DATA: 2016/04/25 **ORDUA:** 19:00-21:00

LEKUA: TOPAGUNEA (KULTUR ETXEA)

PARTE-HARTZAILEAK: 24 LAGUN (9 EMAKUMEZKOAK; 15 GIZONEZKOAK)

HERRITARRAK: Aitor Errasti, Andu Martinez de Rituerto, Elena Basagoitia, Garikoitz Murua, Guillermo Malkorra, Imanol Zobelzu, Irene Larraza, Itzea Urkizu, Itziar Dolado, Ivan Asenjo, Javier Arana, Jokin Aldazabal, Joserra Zalakain, Juan Urretabizkaia, Juan Jauregi, Katixa Perea, Kike Zinkunegi, Maria Mendiluze, Mireia Roca, Moira Eceiza, Olga Artola, Pablo Alberdi, Tomas Plazaola, Xabier Goenaga.

UDALA: Garikoitz Lekuona (teknikaria) eta Iñigo Muñoz (teknikaria).

LAGUNTZA TEKNIKOA: Ana López eta Eider Larrañaga (Enea)



GAI ZERRENDA

1. Saioaren aurkezpena
2. 2030rako Tolosako Ikuspegiaren lanketa
3. Herritarren parte-hartze prozesua gidatuko dituzten irizpide eta konpromisoen eztabaida
4. Saioa balorazioa eta amaiera

LABURPENA

1. SAIOAREN AURKEZPENA

Garikoitz Lekuona, Udaleko teknikariak bertaratutakoei ongi etorria eman die.

Talde sustatzailearen lehenengo bilerako arlo nagusiak laburki gogorarazi ondoren, akta posta elektronikoz bidali dela adierazi du. Guztiek ondo jaso dute, Javier Aranak ezik eta berriz bidaliko zaio. Hala ere, prozesuan zehar sortuko diren dokumentuak Udaleko web orrian eskuragarri egongo direla aipatu zen, eta Talde Sustatzailearen lehenengo bilerako akta dagoeneko web orriaren bidez eskuragarri dagoela jakinarazi zen.

Ondoren prozesuan zehar laguntza emateko kontratatu den Enea enpresako Ana López eta Eider Larrañagaren aurkezpena egin du.

Hitza Anak hartu du, enpresaren aurkezpen laburra eginez eta bertaratutako kideen laburpen erronda laburra egin da.

2. 2030RAKO TOLOSA KO IKUSPEGIAREN LANKETA

2030 urteari begira, Tolosako ikuspegia lantzea da saioaren parte honen helburua. Honetarako eta abiapuntu gisa, ikuspegiaren lanketa oinarrituko duten arlo nagusiak aurkeztu dira:

- Talde sustatzailearen lehenengo bileran egin zen lanketan identifikatutako hitz, ideia eta kontzeptuetatik abiatuz, berauen tratamendua egin da **hitzen-mapa** eta arlo edo **gai nagusiak eta beraiekin erlazioa duten kontzeptu desberdinak** proposatuz.
- **Haurren hiria** ekimenaren baitan, 8-12 urte arteko umeek nolako Tolosa nahi duten azaltzen duen bideoa.

Honekin batera Ikuspegia zer den eta nolakoak izan daitezkeen azaldu eta ondorengo lanketan lagungarria izan dadin, Ikuspegiaren edukia eta erabilitako hitz eta estiloaren inguruko gakoak aurkeztu dira, baita 3 udalerrri desberdinetako Ikuspegiak ere.

Jarraian, 4 pertsonetako 6 lantalde sortu dira. Talde bakoitzari arlo/gai nagusiak jasotzen dituen 2-3 fitxa eman zaizkio, bakoitzaren inguruko esaldi bat osatu dezaten, zeina Tolosako 2030 urterako Ikuspegia osatzeko baliagarria izango den. Talde bakoitzak osatutako esaldia komunean jarri da.

Ondoren, fitxa bakoitzaren gai nagusien priorizazioa egin da, parte hartzaile bakoitzak guztien artean 5 gai/arlo aukeratu behar izan dituztelarik. Parte-hartzaileek priorizazio honen inguruko zalantzak azaldu dituzte eta honen helburua, Ikuspegia osatzerakoan lehenetsunezko zat jotzen dituzten arloak identifikatzea dela azaldu da, Ikuspegiaren pisu gehien izan beharko luketen arloak/gaiak identifikatuz.

Hauek dira taldeetan landu diren esaldiak eta priorizazioa (! Ikurrarekin babes gehien jaso dituzte arloak/gaiak):

ARLOAK/GAIK	OSATUTAKO ESALDIA	PUNTUAK
Ekonomia, Merkataritza, Ekintzailletza, Baldintza sozioekonomiko duina	Saretutako ekonomia aktiboa izango du Tolosak. Berezkoak dituen baliabideak indartuz , sustatuz eta egitasmo berriei bultzada emanez. Merkataritza izango da gainontzeko sektoreak mugitu eta elikatuko dituen, erreferentziltasuna mugetatik haratago zabalduz.	10
Inmigrazioa, Bizikidetzeta, Integrazioa	Ciudad abierta con grandes posibilidades para impulsar la integración de todas las personas.	4
Gizarte kohesioa, Ekitatea, Berdintasuna, Balore sozialak	Komunikazioa eta baloreak azaleratu egin behar dira	11
Bizi kalitatea, Oreka, Herri bizia, Ongizatea	Tolosar guztiok oinarrizko bizi baldintza duinak ditugu eta hiri orekatua urbanismoaren ikuspegitik eta guztion ongizatea bermatua dago.	7
Iraunkortasuna, O emisioak	Tolosaldeko herri iraunkor eredugarria. Trafikoa murriztuta, energia burujabetza, etxean efiziente eta basoz aberatsa.	8
Herritarren parte-hartzea, Autogestioa, Gardentasuna, Auzolana	Parte-hartzea errazteko , tresna eta bideak estandarizatu eta prozesuak publikoak eta transbertsalak egin, besteen parte-hartzea posible eginez.	4
Euskara, Hezkuntza eskubidea	Euskara eta gaztelera ardatza izanik, beste hizkuntzei lekua uzten dien hizkuntza sistema. Bakoitza bere hizkuntzan eroso sentitzea. Sentimendu lokala baina bisio globala. Hizkuntzak ez dira arerioak, osagarriak baizik.	8
Kalearen erabilera	Kalea ez da leku batetik bestera joateko tresna hutsa izango, bizileku bat izango da; Ikultur, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza. Hori lortzeko oinezkoentzako herri inklusibo bilakatuko da Tolosa eta ibaia ere herriaren aisian integratuko da.	8

Kultura, Aniztasuna, Herri dinamikoa, Kultur taldeen sarea		Kultur talde anitzez osatutako kultur sare dinamikoa dago tolosan, eta nahikoa baliabide eskaintzen zaio.	7
Osasuna, Ekipamendu publikoak	!	Ongizatea landu behar da, ez gaixotasuna, berez sustapena hezkuntzarekin lotuta dago. Bizimodu osaasungarriak bultzatu. Guztion eskubideak bermatzen duen ekipamendua(k)	11
Gazteak		Arduratsuak. Baloreetan hazitakoak (solidarioak, aniztasunaren defentsan). Gure etorkizuna eta itzaropena.	4
Heziketa, Herri jakintsua	!	Errespetua oinarri hartuta ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen herri jakintsua izango da Tolosa.	15
Kirola		Eficiencia, mantenimino, mejora de las instalaciones existentes. Ampliar la idea del deporte al ámbito lúdico, formativo, participativo, integrador, no solo competición. Diversificar deportes, edades, horarios.	4
3. adina	!	3. Adina ere aktibo bat eta aktiboa gizartearentzat eta norbanakoarentzat, eta mepekotasun garaian zaindua eta maitatua	12

3. HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUA GIDATUKO DITUZTEN IRIZPIDE ETA KONPROMISOEN EZTABAIDA

Prozesu konkretu honetan burutuko den herritarren parte-hartzea gidatuko duten irizpide/konpromisoen aurkezpena egin da. Bi motatako arauak daude: beharrezkoak eta aldakorrak. Talde bakoitzak aldakorrak bezala identifikatu diren 2 irizpide/arau landuko baditu ere, beharrezko bezala identifikatu direnen inguruko zalantza edo ekarpenik egiteko aukera dago baita ere. Taldeka, irizpide/arauak sailkatu behar izan dituzte:

- Ados
- Kontra
- Zerbait gehitu edo kenduko genuke. Zer?

Saioa amaitzeko denbora gutxi falta denez, fitxak osatu eta jaso egin dira, datorren astean burutuko den saioa proposatu diren aldaketetatik abiatzea adostu delarik, irizpide eta konpromiso hauen inguruan taldearen adostasunari garrantzi berezia emanaz.

Jarraian, jasotako ekarpenak aurkezten dira:

C. METODOLOGIA		
11. Ekarpenak egiteko bideak		
Ekarpenak egiteko aurrez-aurreko espazioez gain, udalerriko web eta sare sozialen bidezko parte-hartze bideak eskuragarri egongo dira. Hala ere, azken hauen bidez jasotako ekarpenak talde sustatzailearekin egiaztatuko dira.		
ADOS	KONTRA	ZERBAIT GEHITU EDO KENDUKO GENUKE. ZER?
		Espazio desberdinak eskaini, kaleko jendeari, bere ekarpenak emateko. Parte-hartzeko modelo desberdinak abiatu: kalea, inkestak, web, elkarteekin bildu, eta abar...

C. METODOLOGIA		
14. Erabakiak hartzea (Gehiengoa/Adostasuna)		
Erabakiak kontsentsu bidez hartuko dira, akordioak lortzeko "gehiengoen" formulen erabilera ekidinez.		
ADOS	KONTRA	ZERBAIT GEHITU EDO KENDUKO GENUKE. ZER?
		Gehiengoa, lehentasun bezala hartu, baina beste aukerak ere aipatu eta baloratuz. ADOSTASUNA lortzea, bide onena.

C. METODOLOGIA

15. Ebaluazio jarraitua (bilera bakoitzean)

Saio bakoitzean berau ebaluatzeko espazioa egongo da eta bertan jasotako ekarpen guztiak kontutan hartuko dira, partaidetza eredia identifikatzen diren beharretara doitu eta egokitzera aldera aurrerapausoak emateko.

ADOS	KONTRA	ZERBAIT GEHITU EDO KENDUKO GENUKE. ZER?
		Saio bakoitzean berau ebaluatzeko espazioa egongo da eta bertan jasotako ekarpen guztiak kontutan hartuko dira, <u>partaidetza eredia beharren arabera egokituko da.</u>

4. SAIOAREN BALORAZIOA ETA AMAIERA

Saioa bukatu aurretik honen balorazioa egin da, parte-hartzaileek 1etik 10era baloratu dutelarik saioan izandako **giroa**, erabilitako **metodologia** eta lortutako **emaitzak** (1 minimoa eta 10 maximoa izanik).

- **Bileraren giroa** hoberen baloratu den gaia izan da, gehiengoak 8-9 tarteko puntuazioa eman diolarik. Kontuan izanda hau lehenengo "lan-bilera" izan dela, abiapuntu ezin hobe bezala ikus daiteke eta hurrengo saioetara begira, giro ona mantentzeko garrantzi berezia ematen jarraitu beharko gara.
- **Metodologiari eta emaitzei** dagokionez, bi gaiak modu antzekoan baloratu izan dira, gehiengoak 6-7 tarteko puntuazioa eman diolarik.

Hala ere, metodologia hobetzeko proposamen batzuk ere egin ziren. Gehienbat gai batzuk lantzeko denbora faltaren inguruan eta gehiago sakontzeko zailtasunean. Bestalde partaideen arteko giroa ere gehiago lantzea proposatu zen, sormena bultzatzeko. Beste partaide batzuen iritziz berriz, metodologia biziagoa izan behar du. Proposamen hauek hurrengo bileretara begira aintzat hartuko dira

Saioari amaiera emateko, eskerrak eman, datorren saioa maiatzaren 2an, ordu eta leku berean izango dela goratzen da.

